

Siberian barrena

Javier Rojo

"Mikel Strogoff"
Jules Verne
euskaratzailea: Karlos Zabala
Ibaizabal, 2002

Jules Verne (1828-1905) askotan jarri izan da abenturetako nobelagileen eredutzat. Bere nobela askok, idatzi zituen garairako sinestezinak ziruditen bidaiak kontatzen dituzte. Munduaren inguruan, ilargira edota itsas-hondora: pertsoniak beti doaz heltzea ezinezkoa dirudien leku batera. Baina itxurazko ezinezkoa dirudien leku batera. Baina itxurazko ezinezkotasun honetan idazleak beti bilatu izan du bidaiak, garaiko jakintzaren arabera posibleak izatea. Irudimena erabiltzen du, bai, baina orden baten barruan. Mikel Strogoff ere bidaia bat kontatzen duen nobela dugu. Bidaia hau ez da ilargira doazen pertsonaiek egiten dutena bezain luzea, baina zirrargarria da oso, arriskuaren aldetik tsarraren mandatari honek haren anaiari mezua emateko Siberian zehar egiten duenak ez baitu ezertxo ere falta. Idazleak, hasieran burutu ezina zirudien bidaia egingarria dela azpimarratzen duten osagaiez jantzen jakin du. Pertsonaiek ez dute egunean egin daitezkeen baino kilometro gehiago egiten, edota ibai bat zeharkatzeko, fisikaren (eta igerilaritzaren) legeak errespetatzen dira. Eta irakurleren bati abenturak gehiegi gustatzen ez bazaizkio, beti ere errepara dakioke liburu honek turismo-gidatik duen zatiari. Nahi gabe ere, Siberiako geografian aditua bihur daiteke-eta.

El Correo, 2002-08-21